



XLVI. ZARAMAGA TXAPELKETA SOZIALA

Kaixo pilotazale guztioi,

Dakizuenez, martxoaren hasieran Zaramagako txapelketa sozialaren 46. edizioa geldiaraztera behartuta egon ginen COVID 19ak sorturiko osasun larrialdi honengatik. Gaur egun, egoera hau pairatzen jarraitzen gabilta eta ez dakigu noiz arte luzatuko den.

Bost hilabeteko txapelketa aurreikusten genuen eta data hauetan, maila guztietako final laurdenak jokatzeko beharko ginatke. Zoritxarrez, ez da posible izan.

Egun bizitzen ari garen egoera eta etorkizun laburrera datorkiguna ikusita, Zaramaga Pilota Elkarteko Zuzendaritza Batzordetik aurtengo edizioa bertan behera uztea erabaki dugu.

Zin egiten dizuegu 47. edizioari are gogo eta ilusio gehiagorekin ekingo diogula. Badakigu, zuek hor egongo zaretela; pilotariak, epaileak, laguntzaileak, babesleak... eta nola ez, ostegun, larunbat eta igande guztietan Zaramaga Auzoko frontoian biltzen zareten pilotazaleak.

Ondo egongo zaretelakoan, besarkada estu bat. Frontoietan ikusiko dugu elkar.

Juan Miguel Bordege

Zaramaga Pilota Elkarteko Lehendakaria.